

## **KORONABIRUSAREN HIZTEGIA, EUSKARAREN KALITATEA ETA FALTAN BOTA**

Euskararen nolakotasunari buruz, ez zenbatasunari, sei orrialde tolestuta zituen txostentxo bat zabaldu zuen Eusko Jaurlaritzak. Euskararen Aholku Batzordeak prestatuta. Azken orrialdean Mitxelenaren hitz batzuk aipatzen ditu. 2004an izan zen baina gaur ere gogoratu behar ditugu, eta Mitxelenaren hitzak lehenagokoak dira.

‘Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta aiderazpidea besterik. Ona da beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik da ona haizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta haizkora amutsa, berriz txarra. Gehi dezagun ez dela berez hizkuntza amutsik, horrelako hutsik ageri baldin badu, zorrotz zezaketen adina zorrotzu ez dutenena dela soil-soilik, errua, behiala Axularrek zioenez’.

Egunkarietan iragarri dute hiztegi hori. D. V. egunkarian ere jaso dute.

Otto Jespersen hizkuntzalariak Oxford-en eta bere liburuetan tesi bat zabaldu zuen: anbiolako hizkuntzak, edo arkaikoak (arjé grekeraz) ez zutela ez hiztegirik ez egituratik XX mendeko gizakiaren ideiak eta pentsabideak adierazteko. Hartu zuen oinarria, txerokierako esaldi mordotxo bat izan zen, EEBBetako norbaitek, hizkuntza hori ondo ezagutzen ez zuenak, ingeleserara egindako itzulpen batzuk. Tesi horren oinarriak ondo ezagutzen zituen beste batek astinaldi bat eman zion Jespersen jaunari. Nik ezagutzen dudana euskaltzale batek

kontu hauek eta beste batzuk argitaratu nahi zituen, baina gu-re arteko jaun jakitun batek, erromara jarri zion. Honek ere Bretaina Handian ikasketa batzuk egin zituen eta euskaltzalea-ri galdetu zion zer den banatasuna. Inguruan bazuen beste bat EEBBetan ikasketak osotzen ibilia: ‘ex America lux’ (?).

Dena dela euskaldun asko daude nonbait gramatikan, gra-matika erkatuan, lesikografian adituak (?); (x hizkiak soinu bat du euskaraz eta ks soinua gazteleraz eta beste zenbait Euro-pako hizkuntzatan. Euskararen antzeko soinua frantseraz ‘ch’ idazten dute, italieraz berriz ‘sc’, eta alemanieras ‘sch’). Hiz-kuntzalaritzaren sail guztietan adituak egon badaude nonbait. Orain dela aste batzuk, irrati baten entzun nuen ‘duna ostea (ostia fonetikoki) dela Donostia izenaren oinarria. ‘Apellidos vascos’, irakurri behar da, eta kontuz ibili erkaketa edo konparatismoaren ur handietan sartzeko. Gaur bertan (17-07-2020) aditua omen den bati Euskadi Irratian entzun diot esa-ten ‘euskañol’ edo ‘frantseuskara’ lagungarri izango dela eus-kaldun berrientzat. ‘Pidgin’ edo ‘kreol’ motako hizkuntzak. antzuak izaten dira. Eta normalean ez dute laguntzen ingele-sera edo frantsesera hobeto ikasten. Badago beste arlo bat hizkuntzalaritzan B. Malinowskik ‘etnolingüistika’ deitu zuena. 1998 eta 2008. urte bitarteetan Europako unibertsitate mordo bateko adituek beste izen bat, eta egokiagoa, jarri diote: ‘anthropolinguistik’ ‘antropolinguistika, antropolingüística, eta-bar’. Ikus ‘Lexikon der Romanistischen Linguistik’. Eta bide batez garai baten dialekto omen zirenak, hizkuntzak direla frogatu dute: napar-aragoiera, astur-leonera, sardiniera etabar. Eta orain gizaldi bat Erteuropan sortu zuten metodo baten ba-lioa berretsi dute: Wörter und Sachen’, edo ‘Hitzak eta Gau-zak’. Hau kontuan izan dute Europako hizkuntza nagusiek osatu dituzten ‘Hiztegi etimologikoetan’. Adibidez J. COROMI-NAS-ek osatu zuen gazteleraren eta katalaneraren hiztegi eti-mologikoetan. Eta zer esanik ez, Erteuropako hizkuntzalari mordoak frantseraren hiztegi etimologikoa osatu zutenak,

Walter von Wartburg adituaren gidaritzapean. Euskalerrian ere badugu zerbait ikasteko, hemen aditu eta jakitunak bazter guztietan daudenarren.

Zorionez badugu hiztegi bat XXI mendeko baldintzak betetzen dituen: ‘Orotariko Euskal Hiztegia’.

KORONABIRUS Hiztegi horretako hitz batzuen iruzkin laburrak azaldu nahi ditut, besterik ez, euskal hiztegiak erabilita. Hiztegi hau Euskaltzaindiak eta UZEIk osatu omen dute.

ANTIBIRIKO, antibiral; birusen kontrako dena. Birusen oztopatzailea? Birusen ekiditzailea?

ARNASGAILU: arnasa hartzeko tresna edo makina.

ASINTOMATIKO: ‘sintoma =eus. Aztarna edo zantzu. Norbaiti iruditzen bazaio, hitz hauek gizaldi batzuen iraupena duenak euskaldunen artean, ez dutela duintasunik, asintomatiko erabil dezake: a- grekoz gabezia, eta simptomea, grekotik latinera igaro eta hortik zenbait hizkuntza erromantikora iritxi eta jakitunek hartu zutena, gaitz baten zantzua adierazteko.

BAKARTU, Etxeratuta bizitzea izan da agindua, eta hori itxialdian bizita betetzen da, ez bakardadean egonda.

BERROGEIALDIA euskal egituren barruan ondo dago. Beste hitz zaharrago bat ere badago euskaraz: quadragesima > garizuma. Baina hau eliza katolikoaren liturgiarako sortu zuten.

COVID-19. SARS. Koronabirus 2019ko abendua: SARS: ‘Síndrome Agudo Respiratorio Severo’ omen da.

ERANTZUN IMUNITARIOA, m batekin.

ERRE<sup>o</sup> zenbakia, matematika formula bat edo logaritmo bat, kankulatzeko gaixo batek, beste gizaki batzuk kutsatzeko duen ahalmena, algoritmo baten bidez adierazita.

‘Gaixotasun INFEKZIOSOA’ gaixotasun kutsagilea ere esan daiteke.

ETXERATZE agindua: itxialdi agindua esan daiteke, eta komunibide batzuek erabili dute.

GAIXOTASUN bektorea: birusa biziduna izanik, zenbaterainoko ahalmena duen beste bizidun batengana igarotzeko mekanikoki edo biologikoki.

INKUBATU: Euskal Herri osoan egon dira baserriak eta oilo batzuk eduki dituzte, bai Iparraldean eta bai Hegoaldean. Baserritar horiek bazekiten oiloaren berotasunarekin txitak atera nahi zituztenean arrautzen gainean jarri eta garapen bide bat hasten zela, eta handik egun batzuetara txitak aterako zirela. Horri TXITATU esaten zioten. Ez zekiten ez genetika ez biologiarik, baina bazekiten arrautza horietatik, zerbait berria aterako zela, eta txitak agertuko zirela. Beraz ez dut ikusten euskararen aldetik, TXITATU erabiltzeko arazorik garapen horretan, Horrela jaso du OEHak. Txitak izan nahiz birus bat izan, garapena antzekoa da eta heldutze bat da azken emaitza. -tu atzizkia latinaren mailegua da, eta adierazi nahi du zerbait EGITEN DELA: jorra > jorratu; lehor > lehortu: lore/lora>loratu; kimu> kimatu. Iparraldean, xitatu erabiltzen dute.

MASKARA: euskaraz toki desberdinetan, MOZORRO deitzen dute, gazteleraz ‘máscara’ esaten dena. Eta ‘mascarilla’, mozorro txikia izanik, MOZORROTXO esan daiteke euskaraz ere. Euskarak ere badu atzizki bat baino gehiago txikigilea sortzeko. Edo metatesitik sortutako ZOMORRO, eta zomorrotxo. Kominikabide guztiak hor ibili dira MASKARAK eta MASKARILLAK gora eta behera errepikatuz. Euskal Herriko Diputazio batek hizki handiekin MASKARA jarri du fatxadan. Edo metatesia eginez: ZOMORROA. Nire ikasle ohi batek ‘muzu zapia’ asmatu du eta kazetari batek ‘mu-

sukoa'. Baina orain dela urte asko gure aurretikoek, jai batzuetan 'zomorroa' janzen zuten.

EKIPAMENDUA ere agertzen da hiztegi honetan. Hornitu agertzen da OEHan, gaztelerazko 'equipar' adierazteko. Beraz hornidura babeslea, edo edonor babesteko HORNIDURA ez dut uste desegokia denik.

IMMUNITATEA, uste dut imunitatea idatzi daitekeela. Eba-kitzen denetik hurbilena. Euskarak badu hitz bat adierazteko zerbaitetik aske dagoela gizaki bat edo bizidun bat: birusetik jarei/ jaregi: aske utzi, salbatu. Kristau erlijioan 'redención' adierazteko erabili izan zuen Olabidek. Birusaren jareitasun edo jareikuntza erabili daiteke euskaraz. Baina horretarako hiztegi zabalak arakatu behar dita.

PANDEMIA: hitz hau hizkuntza guztietan erabiltzen da: pan + demos+ ia atzizkiarekin grekera dakienak hizkuntza horretatik hartuta dago, eta izen teknikoa izanik, hizkuntza 'handiek' erabiltzen dutena, ontzat hartzen du euskarak ere. Pas-pasa-pan =dena, guztia, adjektiboa hiru generoekin, gizonezkoa, emakumezkoa, eta neutroa; demos= herria; -ia atzizkia, kalitatea adierazteko.

ZAINKETA INTENTSIBOKO UNITATE: Ikastaro TRINKOAK egiten dira Euskal Herrian. Beraz ARTAPEN TRINKOAK ere burutu daitezke hospitaletan. Eta horretarako gela eta esparru bereziak egoten dira eritetxeetan, gazteleraren egiturak erabili gabe euskal hitzekin. UZI idtzi dute batzuk 'unitatea zainketa intentsiboetarako'. ZAINKETA edo ARTAPEN TRINKORAKO GELAK, uste dut euskal hitz eta egiturekin egoki adierazten dutela ente edo izaki hori.

ZOONOSI: ornodun edo errosario hezurra dutenetik giza-kira eta alderantziz igarotzen den gaitza. Hitz hau ere grekeratik hartu dute hizkuntza 'handiek'.

Hiztegi hau 'Diario Vasco' egunkariak atera zuen 2020-04-17an, Euskaltzaindiak eta UZEIk prestatu zutenetik nonbait.

Hiztegi honek eta beste zenbait hitz zerrendek hurrengo lerroetan aipatzen ditudanak galdera bat jartzen digute mahai gainean: euskera pixka bat hobeto ezagutu eta egoki erabili behar da, ala edozelan erabili eta 'EUSKAÑOL' sortu nahi dugu. Izen hau egokia da guztiz, euskera-gaztelera nahasiz sortu daiteken 'pidgin', edo 'kreol' erako sasi hizkuntza bat sortzeko. Errenteriako udalak argitaratzen duen aldizkari serio baten ikusi nuen orain dela urte batzuk. Egoki deritzat 'espanglish' eta antzeko sasi-hizkuntza batzuk definitzeko sortu dituzten bezala, hemen 'euskañol' edukitzea.

## **BESTE HIZTEGI BATZUK**

BERRIA egunkarian irakurri ditut hurrengo hauek:

AFOROA: Ikus-entzuleen kopurua

ASISTENTZIA = jendetza edo ikus-entzuleak

AUDIENZIA = entzuleak

AHOTS KUALIFIKATUA = voz cualificada? Pisuzko iritzia esan daiteke.

AZKEN EGMA = azken 'encuesta general de medios'.

BIODIBERTSITATEA, bioaniztasuna ere esan daitekeela us-te dut

HUMANOEK: gizakiek

oso INTENSOA izan= oso TEINKa/TENKa izan, edo TRINKOA.

KOZINATU,-tzeko =cocinar. Euskerak badu SUKALDEA, eta horko lana SUKALDETU izan daiteke, esta esan daiteke.

GOBERNANTZA: badago Jaurlaritza = gobierno

PREKARIETATEA: behin-behineko lana, edo behin-behineko egoera.

PISU turistikoen erradiografia: turistentzako solairuen argazkia/ irudia

PLARAFORMA digitala: OINARRI DIGITALA edo ZUTABE DIGITALA.

postdoctoral fellow gisa ari: hau euskenglish da. Doktoretza osteko bekadun bezala ari.

EGOERA ZAURGARRIA (hiriente)

EBASIO TXIKIA =pequeña evasión: atsedenaldi laburra / txikia

IKT (Laburdurak hitz bihurtzeko ohitura) = Informazio eta komunikazio teknikak

KONFINAMENDU: itxialdia

ERREHABILITAZIOA. Hitz honetan ez dute argitzen dardarkari anitza ubularea den edo ez. Eta H hori hasperenduna den ala ez.

PRESENTZIALA = klase presentziala. AURREZ AURRE ematen den eskola, hitzaldia, alkarrizketa etabar.

TRANSMITITU: iragarri, adierazi, hedatu, zabaldu, esaterako.

FLOTATU (Ortzadar, 6-10-2012, 8) Urperatu, urpekaria, etabar. Urgaineratu, esaterako. Edo ur gainean egon, ibili.

JUNTADIZO (Berria, 26-5-2020) = erreunio / bilera, batzarra.

ERRAZIO: Donostiako taberna baten aurrean ikusi dut eta ia egunero igarotzen naiz taberna horren aurretik. Gizaldietan euskaldunek ‘anoa’ edo ‘sakotea’ jan izan dute = ración o porción de comida que llevan los pastores al monte.

Menditik kanpo ere jan dezake euskaldun batek zerbait. Eta gure aurretikoek jan izan dute SAKOTEA.

ZUBITO= Pasarela gazt., eta euskaraz zubi txiki bat da, eta hori da ‘pasarela’ hitzak adierazten duena. Bizkargi eta S. Gergorio atxetik beherantza errekatxo bat dator, eta munnaria lez da Gorozika eta Amorebieta-Etxanoko lurren artean. Iturri bat dago leku horretan eta hurbilen dagoen baserria ‘Arriandi’ da. Iturri horretara behin baino gehiagotan joanda nago ur bila. Urak igotzen zuenean zubito bat egurrez egiten zuten, eta ingurukoek izen hori eman zioten iturriari. Azkuek ere jaso zuen hitz hau. Ingurukoek ‘subitto’ esaten dute.

ECHAR EN FALTA = faltan bota. Hainbat kazetari, esatari eta itzultzailek eskaintzen digute ‘ekarri’ hau. ‘Orotariko Euskal Hiztegia’ joanda HAUTETSI edo HAUTESI hitzean hau adierazten du: ‘conocer cuál falta’, ‘cuál oveja falta’, ‘conocer lo que a uno le falta’, ‘echar en falta’. Adierazi hau jasotzeko, Azkuek eta beste euskaldun batzuek artzainekin hitz egin zuten, antropolinguistika metodoa erabiliz eta honelako beste emaitza eder asko bildu zituzten. ‘Orotariko Euskal Hiztegia’, jasota daude hitzak eta biltzailea nor izan zen. Beraz ez dira atzo goizean norbaitek asmatu zituen hitzak.

Números rojos = zorretan utzi. Amezketako andereino batek 1990-1994 tartean behin esan zidan Amezketako herriar batzuek dendan zorra uzten zutenean esaten omen zuten: ‘txuria beltzean jarri dut’ eta horrek esan nahi du zorra utzi dudala. Zorra kuaderno txurian idazten zuen dendariak arkatz beltzarekin’. Herri jakinduriak sortu ditu eta gorde ditu euskal egitura jator batzuk. Inork jasotzen ez baditu galtzen dira eta kito, ‘EUSKAÑOLERAKO bidea erraza da.

Horrelako datoak biltzeko antropolinguistika apur bat eza-gutu behar da. Eta orain gizaldi bat erteuropan asmatu zuten



ikerketa metodo bat: ‘Wörter und Sachen’, Hitzak eta gauzak erabili. Horren emaitza bikainak ezagutzeko hiztegi etimologikoak begiratu behar dira. Bi aipatzeko Joan COROMINAS jaunak idatzi zuen ‘Diccionario crítico etimológico ...’ Hamar tomo edo ditu. Gauza bera egin zuen katalanarekin. Eta beste bat FEW edo ‘Französisches Etymologisches Wörterbuch’ batez ere Erteuropako hizkuntzalari talde batek osatu zuena. Walther von Wartburg, suitzar hizkuntzalariaren gidaritzapean 30 tomo edo dira.

Ondorio batzuk atera daitezke. Gure aurretik dabiltzan hizkuntza handietan ‘antropolinguistika’ metodoa erabilita hainbat hitz jaso dituzte. Beraz guk ez dugu XXI. mendean ‘Bizkaiko golkoa’ asmatu, ezta aurkitu ere. Antropolinguistika metodoa Europan orain gizaldi bat H. Schuchart eta Meringer hizkuntzalariak asmatu zuten. Eta garai berdintsuan baina Trobiand uharteetan Bronislaw Malinoskik. Honek ‘Etnolinguistika’ izena jarri zion, Europako unibertsitate talde batek alkar lanean, lehenengo izena jarri diona, eta egokiagoa dena.

GALDERA BATZUK ere sortzen dira.

1. Jakina da hizkuntza bakoitza kode bat eta altxor bat dela. Eta jaurlaritzak guztiek diru kopuru ederra eralgitzen dute hizkuntza zaindu eta garatzen. Espainiako Erret Akademiak makalak ez diren diru kopuruak jasotzen ditu. ‘Instituto Cervantes’ sortu eta garatu du gobernuaren diruekin. Badago Goethe Institut’; badago ‘L’Alliance Française’, eta badaude beste erakunde batzuk.

2. Hemen aipatu dudan hiztegiak diru ofiziala jaso du. Eusko Jaurlaritzak, Diputazioek, eta udaletxeek ere eman dute. Euskarak ez du eskatzen kalitatezko lanik? Baten batzuk etekin ederrak atera dizkiote euskarari ere. Ala indoeuropearren aurreko hizkuntza izateak eskubidea ematen du edozelan go lanak egiteko? Ala ‘euskañol’ lortu nahi da, eta hizkuntzen 7.000garren kopurura irixteko beste hizkuntza bat asmatu?

‘Antropologue’, liburuan SIL erakundeak zenbatu dituen munduko hizkuntzak 6900-7000 inguruan daude. ‘Euskañol’ Errenteriako udalak argitaratzen duen aldizkari serio baten irakurri nuen, eta esan didate nerabeek Pasaiaren atal desberdinetan erabiltzen dutela.

Nola zaindu behar da euskara, euskara den zerbait izaten jarraitu dezan? Ala araurik gabeko hizkuntza al da? Ala denak ote dira gramatikari eta hizkuntzalari EUSKAL HERRI honetan. Badakit eta entzun nion kazetari bati ‘musukoa’ esaten. Baina hori baino astunagoak eta harrigarriagoak ikusi ditut. Batek oker neurtu zituen euskal esparru bateko sonogramak, eta inor ez zen harritu. Badago abokatu bilbotar bat, Sapir-Whorf hizkuntzalarien hipotesia gaitzetsi zuena egunkari baten. Baina ez dut inon ikusi jaun honek hopi hizkuntza ezagutzen duenik, eta are gutxiago non bizi diren hopi indiarak. Baina pulpitoa irekita du Euskal Herrian gehien saltzen den egunkarian. Eta orojakilea da nonbait eta ‘de omni re scibile’ idazten du.

Folklore ekintza batzuk garatzen eta sendotzen ote dute euskara?

Filologia ikasi duen edonork daki metodo erraz bat: hiztegiak eta gramatikak erabiltzeko. Euskararentzat, hartu Plazido MUJIKAREN ‘Diccionario Castellano-Vasco’, begiratu horko euskal hitzak, eta gero joan ‘Orotariko Euskal Hiztegiara’, eta begiratu non eta noiztik agertzen den euskararen. 2005ean XVI. tomoa argitaratu zutenean, egunkari batek honela aurkeztu zuen: ‘Hizkuntza guztia, 14.028 orrialdetan.(D. Vasco, 2005-04-27) Kazetariak jarri behar zuten: Indoeuropeeraren aurreko hizkuntza 14.028 orrialdetan.

MITXELENAK ozenago ez dakit, baina argiago ezin zezakean esan gorago aipatu dudan hitzekin, gizakien esku dagoela euskararen etorkizuna.

*J. M. Etxebarria*